

# “Urkiolara joan, zapatak urrutu...”

## Bagilearen 15ean egingo da Arratiatik Urkiolarako errogatibea

“... Aita San Antoniok barriak egingo ditu” dino koplak zaharrak, eta oinetakoak urrutzeko aukerea izango dabe Arratiako oinezko errogatiban parte hartu gura dabenek.

Bagilearen 15ean, zapatuan, egingo da Urkiolara, Paduako San Antonioren santutegira errogatibea; tradizioa jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiarren errogatiba eguna; lehenago herri bakotzak bere errogatibea antolatzen baeban be, azken urteotan, Arratiako parrokiak guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara, bailarako abadeakaz batera; horretarako, Mankomunitateak autobusak ipiniko ditu. Dana dala, erromes guztiak ez dira autobusean joango, batzuk euren kotxeetan eta beste batzuk oinez joango dira eta. Ganera, Zeanuritik eta Dimatik Urkiolara oinezko ibilaldi gidatuak be prestatu dira.



### Egitaraua

Aurtengo errogatibea “*Senidea ala dirua. Krisian ere kristau*” lemapean egingo da.

Hamaikak baino lehentxoago, ongi-etorria emongo jake oinez, autobusean edo euren kotxeetan Urkiolara hurreratutako arratiar erromesei. Ondoren, eta aspaldiko usadioa jarraituz, letaniak abestuz sartuko dira erromesak Urkiolako Santutegira, 11:00etan Arratiako abadeak emongo dabenek meza ospatzeko. Meza ostean, Lemoako parrokiako umeak eta gaztetxoak aurtengo errogatibearen lemeagaz bat datorren sinbolo bat eskainiko deutsee Urkiolara hurreratu diranei. Eta ekitaldi honeguz egitarauari amaiera emongo jako. Autobusean etorritakoak 13:00etan euren herritara itzuliko dira.



plazan 08:00etan.

### Oinezko ibilaldi gidatuak

Igaz legez aurtenean be Arratiatik Urkiolara joateko ibilaldi gidatuak egiteko aukerea izango da. Orain arte be Dimatik, Igorretik, Areatzatik... hainbat jende joaten izan da oinez Urkiolara, baina aurtenean Dimatik eta Zeanuritik abiatuz, ibilaldi gidatuak egiteko aukerea izango da, holan, Arratia eta Urkiola lotzen dauzan bide klasikoetako bi ezagutzera emoteko. Urteerak Dimako plazan goizeko 06:00etan izango da eta Zeanuriko